

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2023KO URTARRILA

Euskal AEko industria-jarduerak % 2,0 egin zuen behera 2023ko urtarrilean


Aurreko hilabetearekin, 2022ko abenduarekin, alderatuta, industria-produkzioaren indizea % 3,0 jaitsi zen

Euskal AEko industria-produkzioa 2023ko urtarrilean 2022ko hil berekoa baino % 2,0 txikiagoa izan da, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek prestatutako datuen arabera.

Urtarrila aurreko hilabetearekin, 2022ko abenduarekin, alderatuta, Euskal AEko industria-jarduerak % 3,0 egin du behera, urtaro-ondorio egokiak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2023ko urtarrileko indizeak, ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera, eta 2022ko urtarrilarekin alderatuta, % 1,6 egin du gora *Ekipo-ondasunetan*; haietan, motordun ibilgailuen fabrikazioa, lokomotorren eta trenbide-materialen eraikuntza eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigintza sartzen dira.

Kontsumo-ondasunek, bestalde, urte arteko portaera positiboa izan dute: % 4,2ko igoera izan dute sektorean, oro har, nagusiki *Kontsumo-ondasun iraunkorren* ekoizpenean % 8,6ko igoera izan delako; haietan sartzen da, besteak beste, altzarien eta etxeke aparatuen fabrikazioa. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* ekoizpenak % 3,2ko igoera

izan du. Haietan honako jarduera hauek sartzen dira: elikagaien prozesatua eta kontserbazioa, garbitasuneko eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmaziako produktuak eta arropen jantzigintza.

Bitarteko ondasunen ekoizpenak urte arteko % 0,9ko beherakada izan du. Sektore horretan, honako jarduera hauek sartzen dira, besteak beste: metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Azkenik, *Energiak*, urte arteko terminoetan, % 17,9 egin du behera 2023ko urtarrilean. Sektore horretan energia elektrikoaren ekoizpena eta hornikuntza eta petrolio-fintzea sartzen dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Urtarrila 2023

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	-2.0	-2.0	-3.0
Araba/Álava	1.4	1.4	2.7
Bizkaia	-5.1	-5.1	-4.4
Gipuzkoa	-0.9	-0.9	-4.9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	4.2	4.2	0.0
Kontsumoondasun iraunkorrak	8.6	8.6	-2.5
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	3.2	3.2	0.6
Ekipo-ondasunak	1.6	1.6	-2.8
Bitarteko ondasunak	-0.9	-0.9	0.8
Energia	-17.9	-17.9	-9.9

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren artean (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2023ko Martxoaren 6a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreen artean, 2023ko urtarrilean urte arteko hazkuntza handiena izan dutenak honako hauek izan dira: *Makinak eta ekipoa*, % 7,1 hazi da; *Elikadura industriak, edariak eta tabakoa* % 4,2; eta *Garraio-materiala* % 3,9. Bestalde, jaitsi egin da ekoizpena honako sektore hauetan: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, % 22,9; eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* sektorean ekoizpenaren beherakada % 7,6koa izan da.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Urtarrila 2023

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	4,2
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-7,6
Kaubua eta plastikoak	0,9
Metalurgia eta produktu metalikoak	-2,3
Materiala eta tresna elektrikoak	-3,7
Makineria eta tresneria	7,1
Garraio-materiala	3,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-22,9

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aekeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2023ko Martxoaren 6a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2023ko urtarrilean, industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan, eta urte arteko beherakadak % 5,1ekoa eta % 0,9koa izan dira, hurrenez hurren. Araban, berriz, industria-produkzioa % 1,4 jaitsi da urte arteko terminoetan.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hil honetako indizea laginaren % **90,19ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62